

# SARRERA

Lehen Hezkuntzako garaian oinarrizkoa da garapen kognitibo eta sozio-afektiboa errespetatzea, egoera berrien antolaketa ahalik eta modu naturalean mantenduz, haur bakoitza kontuan izatea beharrezkoa delako. Lehen Hezkuntzako ikasleek egoera berrien aurreikuspena behar dute, ziur sentitzeko eta norberaren autonomia eta oreka lortzeko.

Kutxa Ekogunera bisita egin aurretik eta ondoren, eskolak aukeratutako tailerraren osagarri diren unitate didaktikoak eskaintzen ditugu. Hauek sakontze saioak direla esan dezakegu, hau da, harrera eta itxierakoak. Saio hauek burutuko den jarduera berriarekin kokatzen laguntzeko beharrezkoak dira.

Eskolan hasita, etxean partekatuz eta Kutxa Ekogunearen arteko lotura sortuz, haurren hezkuntza komunitate guztia inplikatu dugu; haurrek ikasketa- prozesu esanguratsua izatea gure helburua delako.



## HIZKUNTZAREN ZURRUNBILOA

---

Jarduera honen bidez, hizkuntza bat ez erabiltzeak, hizkuntzaren galera dakarrela ikusiko dute ikasleek.

### Jarduera

Launakako taldeetan egingo den jarduera da, talde bakoitzean rol bat errepresentatuko da (hizkuntza ezagutza) egoera ezberdinetan.

Batzuk hizkuntza bakarrean arituko dira, besteak bietan eta taldean sortzen den hizkuntza nagusia identifikatu beharko dute egoera ezberdinetan.

Egoeretan minutu bateko elkarrizketak egingo dira pertsonen artean (konbinazio guztiak), batzuetan komunikazioa emango da, besteetan ez. Gertaera oro egoeren gertaera fitxan jasoko dira.

### 1 egoera

Rolla	Hitz egin	Uleru
1	Gaztelania	Gaztelania
2	Euskara/gaztelania	Euskara/gaztelania
3	Euskara/gaztelania	Euskara/gaztelania
4	Euskara/gaztelania	Euskara/gaztelania

### 2 egoera

Rolla	Hitz egin	Uleru
1	Gaztelania	Gaztelania
2	Euskara	Euskara
3	Euskara/gaztelania	Euskara/gaztelania
4	Euskara/gaztelania	Euskara/gaztelania



### 3 egoera

Rolla	Hitz egin	Ulertu
1	Gaztelania	Gaztelania/euskara
2	Euskara/gaztelania	Euskara/gaztelania
3	Euskara/gaztelania	Euskara/gaztelania
4	Euskara/gaztelania	Euskara/gaztelania

### Egoeren gertaera fitxa

Egoera zenbakia		
Hizlari konbinazioa	Entzuten den hizkuntza	Oharrak
Elkarrizketetan ikusi dena		
Gaztelania erabilera (%)		
Euskara erabilera (%)		
Ondorioa		



## Adibidea

<b>Egoera zenbakia</b>		1
<b>Hizlari konbinazioa</b>	<b>Entzuten den hizkuntza</b>	<b>Oharrak</b>
1-2	Gaztelania	
3-4	Euskara	
1-3	Gaztelania	
2-4	Euskara	
1-4	Gaztelania	
2-3	Euskara	
<b>Elkarrizketetan ikusi dena</b>		
<b>Gaztelania erabilera (%)</b>	50	
<b>Euskara erabilera (%)</b>	50	
<b>Ondorioa</b>		
4tik pertsona bakarra zen euskaraz ez zekiena, baina elkarrizketen %50ean izan du eragina.		

## HAUSNARKETA

- Ze eragin taldeko gutxiengo batek beste hizkuntza bat hitzegitea?
- Hizkuntza gutxituen erabileran eragin handiagoa dela uste al duzu?
- Zein neurri hartuko zenituzke hau ekiditeko?